



BARREN

TOKIKOM



Arriskua etxe atarian

matricúlate en
aek

euskara praktikoa

Izena emateko epea: hilaren 26a arte



100 euskaltzagi baino gehiago Euskal Herri osoan
Más de 100 euskaltzakis en toda Euskal Herria

EUSKARA IKASTAROAK

CURSOS DE EUSKERA

**Elgoibarko AEK euskaltegia
Gabriel Kurutzelaegi 10**

(Toletxegain tren geltokiaren besteko aldean)

607 601 423

elgoibar@aek.eus

Baldintzak beteta, matrikula erdi-prezioan eta bekak udalari esker.



PAULINA

*"Vivo aquí, pero soy de Ecuador.
Quiero aprender el idioma de aquí
y así conocer su cultura"*



RAFA

"B2, lanerako"




MIRIAM

"C1 =EGA, lanagatik"



JOSE MARI

"Para entender y hablar con la gente"



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

KENSINGTON INGELES ESKOLAK
LANGUAGE SCHOOLS

Maila guztiak, talde murriztuak,
langabetuak %10 deskontua,
bakarkako saioak, Cambridge
azterketetarako prestakuntza.

MATRIKULAZIO
EPEA
IREKIA

Eguerdietan ere taldeak:
Orduetgia: 13:00 - 13:45 eta 13:30 - 14:15

Harremanetarako: **943 740 236 / 626 419 354**

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2018an jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik,
irailaren 17tik 28ra, azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus

943 744441



IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera **irailaren 17an, 18:00etan**



HERRI ONURAKO
KOOPERATIBA



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ
azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Eman izena!

Irailak 20, osteguna
19:00etan
Kalebarren plazan

- **Elgoibarko hamaikakoa aurkeztuko dugu**, ekimenera batu eta Euskaraldia ariketaren enbaxadore izango diren hamaika lagunen taldea.
- Euskaraldia ekimenaren **lokala inauguratuko dugu**, San Frantzisko kaleko 11. zenbakian, Muebles Anton zegoen tokian.
- Euskaraldia ariketan parte hartzeko **izen-emate ofiziala zabalduko dugu**. Hiru bide daude informazioa jaso eta izena emateko:

Lokalean bertan (irailaren 20tik aurrera)

elgoibar@euskaraldia.eus

943 74 16 26 / 643 499 169

*Euskararen alde EGOTETIK euskararen alde EGITERA goaz!
Zatoz zu ere!*



Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea





ANDER SORALUZE

Informatikaria

Ikasi programatzen!

behar da, konplexua denean zati txikiagotan banatu, aurretik ezagutzen ditugun kasuekin alderatu... Niri hori guztia oso dibertigarri egiten zait. Prozesu mental hori, ordea, ez dago informatikara soilik mugatua, beste edozein motatako arazoak ebazteko ere oso baliagarria baita.

Gainera, gaur egun, gure beste edozein interes, lan edo afizioren osagarri izan daiteke informatika. Ezagutza pixkatekin gauza asko egin daiteke: nire argazkiak argitaratzeko webgune txukun bat eraiki nezake, nire arropadenda kudeatu, mendian egin ditudan ibilbideak gorde atera ditudan argazki

“Gaur egun, gure beste edozein interes, lan edo afizioren osagarri izan daiteke informatika”

eta bideoei lotuta, nire negozioko bezeroen datu base bat, margotzen ditudan koadroak online saltzeko denda bat, nire arbasoei buruzko informazioa bilatu hainbat eta hainbat datu base publikotatik, nire elkarteak egindakoaren berri eman... Bai, badakit horiek gehienak egiteko aplikazio mordoak dagoela eskuragarri (eta asko debalde), baina gehienetan aplikazio horiek oso orokorrak (edo garestiak) dira eta ez dute nik nahi dudana zehatz-mehatz egiten. Programatzen jakinda, beti egin dezaket nire gustu-gustuko aplikazio bat ala existitzen den bat moldatu.

Programatzen ikasteko, probatzeko besterik ez bada, aukera asko daude gaur egun. Ikastolan LOGOren dordokarekin “lapitza gora” eta “lapitza behera” programatxoak egiten genituenetik denbora luzea pasa da eta, interneten bilatuz, aukera mordoak aurkituko dituzue (LOGO beraren bertsio berriago batez gain).”

Badakit dibertigarria edo interesgarria zer den esatea gai oso pertsonala dela, baina uste dut informatikak, eta, bereziki programazioak, ez diruditela oso erakargarri. Lan mundutik at, informatika oso erabilgarri izan daiteke.

Programa informatikoak, normalean, behar edo arazo bati erantzuna emateko eraikitzen dira. Arazo handiak, txikiak, konplexuak edo sinpleak. Edozein kasutan, programa lerro bakarra idatzi aurretik, arazoa bera ondo ulertu eta egituratu



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDOLA
KUTUNTAMENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2011

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua




I. URTEURRENA

Enrike Martinez Goikoetxea

2017ko irailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
irailaren 15ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-
parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Urte bat jada zu ikusi gabe, baina
egun bat ere ez zutaz gogoratu gabe.
Betirako egongo zara gure bihotzetan.***

Etxekoak




II. URTEURRENA

Jesus Ansola Arana

"Txanbolin"

2016ko irailaren 11n hil zen, 78 urte zituela. Haren oroimenez
II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailaren 15ean,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***




X. URTEURRENA

Nora Rey Nogales

1998/10/18/ - 2008/08/11

***Zure soinekoa, argia.
Zure etxea, zerua.
Zure irria, izarraren keinua.
Beti gure artean.***

Ama eta Aita



Dolmenen Ibilbidean Kerexetaegia Hegokoa trikuharria berreraikiko dute



Dolmenen Ibilbidean (Karakate-Irukutzeta-Agerreburu mendilerroa) Historiaurreko monumentu multzo nabarmenetakoa berreskuratzeke eta ondare arkeologikoa arekiko interesa eta errespetua sustatuz herritarrek sentsibilizatzeko lankidetzahitzarmena sinatu dute Bergarako, Elgoibarko eta Soroluzeko Udalek Debegesa garapen agentziaren koordinaziopean.

Honela, datozen hilabeteetan hainbat jarduera egingo dituzte. Nabarmenezkoa da Kerexetaegia Hegokoa trikuharriaren berreraikitzea. Bereziki, hilobiko kamara zentratuko da, baina tumuluaren berreraikitze partziala ere egingo dute trikuharri arrunt baten egitura nolakoa den ezagutzera emateko. Lurra prestatzeko lanak hasita daude eta datozen asteetan ekingo diete berreraikitze lanei Aranzadi Zientzia Elkartek, EHUko Arkitektura eta Zaharberritze alorreko teknikariek eta UNED Bergarako kideekin elkarlanean. Urrian amaitzea aurreikusi dute. Azaroan, berriaz, Gipuzkoako trikuharririk handienetako den Irukutzeta trikuharriaren indusketa lanak hasiko ditu Aranzadik.

Dolmenen ibilbidea ezagutarazteko doako bisita gidatuak eskainiko dituzte udazkenean: irailaren 30ean, urriaren 21ean eta azaroaren 4an, euskaraz, eta urriaren 7an eta 28an, gaztelaniaz. Interesatuak aurrez izena ematea beharrezkoa da 657 79 46 77ra deituz edo info@begi-bistan.com-era idatziz. Bestalde, Dolmenen Ibilbideko liburuxka berria editatu dute. Aurkezpen testu laburrak gain, mapa agertzen da monumentuen kokapenarekin. Elgoibarko Herri-tarren Arretarako Bulegoan eskura daiteke.

Txillarre irabazle Ordiziako barazki azokan

Idiazabal gazta lehiaketa garrantzitsuaz gainera, bestelako lehiaketak ere egiten dituzte Ordizian, Euskal Jaietan. Elgoibarko Txillarre baserriko Argiñe Rubiok azokan jarri zuen barazki postuak lortu du lehen saria barazki lehiaketan, aurten hirugarren urtez jarraian.

Jon Gurrutxagak disko labur bat kaleratuko du irailean

Jon Gurrutxagak irailaren amaieran argitaratuko duen disko laburrari izenburua ematen dion *Kateak* abestia entzungai jarri du sarean. Bi disko luze argitaratu ostean prest du bere lan berria. Formatu laburraren alde egin du oraingoan eta lau abesti grabatu ditu Aieka estudioan. Gaztelupeko Hotsak zigiluak argitaratuko du Lokatzetan Play biniloko single bilduman. Biniloko singlean, *Kateak* eta *Desitxuratuz* abestiak izango dira. Bestetik, CDak, aurreko kantuez gain, *Unearen oraina* eta *Wrinkled shirts and jackets* izango ditu. Blues, gospel eta musika beltzaren aldaera batzuk jaso ditu lanak. Gitarra akustikoa, bateria eta ahosoinua jo ditu berak, baina Iñigo Gorritxategi (baxua), Patxi Zabaleta (gitarra), Marcos Coll (ahosoinua), Urbil Artola (dobroa) eta Peio Gorrotxategi (teklatura) izan ditu lagun eta Xabi Lasak *Kateak* eta *Desitxuratuz* abestien hitzak idatzi ditu.



Arg. Jairo Berbel

Erretiratuen bidaia Santanderrera

Jubilatuak etxeak bidaia antolatu du Santanderrera urriaren 3rako. Autobusez joan eta bisita gidatua, hamaiketako eta bazkaria izango dituzte. Izena emateko bulegora joan behar da astelehen edo ostiraletan 11:00etatik 12:00etara. Bazkideek 38 euro ordainduko dituzte eta besteek 43 euro.

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan boto gehien jaso duten hiru proiektuak egingo ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak zortzi proiekturen artean lehentasun handiena zuena bozkatzeko aukera eman zien herritarrei eta puntu gehien lortu dituzten hiru proiektuak egingo ditu. Guztira, 374 elgoibartarrek eman dute botoa aurrekontu parte-partzailean eta Udalak datuen balorazio oso positiboa egin du. "Datu hauek, ildo eta bide honetan lanean jarraitu behar dugunaren erakusgarri dira", esan du Ane Beitia alkateak. "Elgoibar hobe bat eraikitzeko erronka handienak identifikatzea guztion artean erabaki behar da".

Udalak 200.000 euro bideratuko ditu herritarrek lehenetsitako hiru proiektuak gauzatzeko. Kopuru hori jasota dago aurtengo aurrekontuetan. Bolatokiko parkea da puntu gehien eskuratu dituen egitasmoa, 2.124, hain zuzen ere. Gune hori igarolekua da gaur egun eta bizilagunek aisialdirako edo egoteko leku moduan erabiltzeko be-



Aizkorri eta Urazandi arteko oinezkoentzako bidea

rrurbanizatzea proposatu dute argitsu eta erakargarriago bihurtuz. 100.000 eurokoa da horretarako aurrekontua.

Aizkorri eta Urazandi lotuko dituen oinezkoen pasealekua egitea da bigarren egitasmoa, 55.000 euroko aurrekontua duena. Bidexka bat dago hor eta egunero igarotzen dira bizilagunak. Baina egoera ez da ona, beraz, berrurbanizatu, egokitu eta bere onera ekarriko dute herriko auzoen arteko lotura hobe-

tzeko eta ibilbide osasungarrien sarea sustatzeko.

Azkenik Bernardo Ezenarro kalea berrurbanizatuko dute 50.000 euroko aurrekontuarekin. Trafikoa noranzko bakarrera ipintzeaz gain, espaloia zabaldu eta anbulatorio aurreko zebra-bidetik igarotzen diren oinezkoen segurtasuna handitu nahi dute. Gainera, galtzadaren alde batean aparkalekuak sortu ahal izango dituzte.

Robotika dibertigarria tailerretarako izen-ematea zabalik dago

Urriaren 5ean hasiko dira Robotika dibertigarria tailer teknologikoak. Elgoibarko Udalak, Doplay enpresarekin elkarlanean antolatu ditu 7 eta 16 urte arteko haur eta gazteentzat eta saioak ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara bitartean, izango dira Makina Erremintaren Institutuan (I.M.H). Robotak diseinatzeko, eraikitzeko eta programatzeko, bideojokoak sortzeko eta asmakuntza teknologikoak garatzeko aukera izango dute. Urritik maiatzera bitartean hileko 36 euro ordaindu behar dira eta Udalak Elgoibarko haurrentzat diruz lagunduko ditu ikastaroak. Izen-emateko tarte irailaren 17tik 27ra bitartekoa da <http://bit.ly/robotikaelgoibar> helbidean. Informazio gehiago jasotzeko, berriz, deitu zenbaki honetara: 660 382 674.

Arabako Ozaeta herrira familia irteera antolatu du Atxutxiamaiak

Irailaren 22rako, Arabako Ozaeta herriko Otaza auzoan dagoen GaraiOn kultur espaziora familia irteera antolatu du Atxutxiamaiaren Kiribilduz egitasmoak Udalarekin lankidetzan. Naturako elementuekin egindako artelanak ikusteko aukera egongo da eta baita hango parajeak bisitatu, naturarekin harreman zuzena izateko eta naturan jolasteko ere, beti ere hizkuntzaren familia transmisioan eraginez. Gainera, Ipuinaren Eguna antolatu du egun horretarako Garaionek eta Euskal Herriko 11 ipuinzale eta kontalarik jardungo dute. Irailaren 18a da izena emateko azken eguna. Elgoibarko Izarrako bulegoan edo www.elgoibarkoizarra.eus webgunean eman daiteke. Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek 14 euro ordaindu beharko dituzte eta 16 euro gainerakoek (2 urte edo gutxiago duten hurrek, doan). Hamaiketako, bazkaria, askaria eta arropa eroso eraman beharko dira txangora.

Arriskuak inguratuta



Oscar Iriondo etxe atarian,
Txiki txakurrekin.

Atariko intxaurrondo ederrek erdi ezkutatu dute Altzolako Kanterape baserria, baina bestela ere asko izango dira etxe honi sekula erreparatu ez diotenak. Etxe bakarra da; postaletako etxea, duen atari-alde gaiztoagatik ez balitz. Hantxe bizi da Oskar Iriondo, Txiki eta Argi txakurrak lagun dituela. Etxera iristeko, 634 errepeidea gurutzatu behar du aurrena Oskarrek Altzolako bi bihurgune itxien artean, eta trenbidea ondoren, tunelaren ahoan bertan duen arranpatik igota. Sarrera nagusitik bi metro eskasera dauka trenbidea eta atzeko aldera, mendia. Nora hazi ere ez du etxeak, baina beharrik ere ez du Oscarrek. Kanterapen jaio eta hazi da, eta ohitu da arriskura.

- AINARA ARGOTIA -

Altzolako autobus geltokitik oinez egiten du etxerako bidea sari Oscarrek, ertz-ertzetik eta pauso azkarrean. Abiadura moteltzeko seinaleak egon badaude errepeidearen bi aldeetara, baina oinezkoarentzat beti doaz bizi autoak. Zer esanik ez kamioiak, gaur bezala bata bestearen atzetik egokitzen direnean. Ibilgailuen zaratak berak atezuan jartzen du edonor. Etxe pare aldera iritsi eta errepeidea gurutzatzeko unea ez da, baina, goxoagoa. Trafikoa handia da inguru horretan, eta errebuelta bihurria gain-gainean. Autoz dator gaur gure protagonista, lagun batekin. Zentralerako bidea dagoen ondo-ondoan laga dute autoa, zabalgunek txikian, oker-oker eginda noiz jausiko dagoen argi-postearen ondoan. "Ez hortik gurutzatu. Autoak gainera etortzen dira. Ezkerreragotik pasatu behar dugu eta ezkerretik joan gero arranparaino", ohartarazi dio lagunari, autotik irteteaz bat. Arriskura ohitua egonagatik urduritu egin da bisitariengatik eta eskua eman dio lagunari errepeidea gurutzatzeko. "Azkar". Debatik

datorren trenak aurki irtengo du Mendaron, 15:52ak jo dutelako erlojuan. Dena hartu behar da kontuan. Saltoan igo du pretila berak, goizean solte laga dituen txakurrak katera lotzeko, eta arrapaladan egin dute gainerakoek etxe atarirainoko bidea, arbola-peko mahaira batzeko. Inguru hartan berriak direnentzat zarata izugarria da, baina Oscarren belarriek hori ez beste dena entzuten dute itxuraz. "Hemen lasai-lasai bizi naiz. Trenaren zarata ere ez dut entzuten batzuetan etxetik", dio. Bakarrik bizi da Kanterapen, duela hiru urte etxean bizi zuen Angel Mari anai zaharrena hil zitzaionetik. Gurasoak hil zitzaizkion eta beste bi anaiak kanpoan bizi dira. Gaur, haurren jolas-parkeak ere hesitzen diren sasoiaren, kosta egiten da sinistea Gerardo Iriondo eta Karmen Etxabe andre-gizonen lau seme hazi zituztela hemen, horrenbeste arrisku pilotzen diren atari-aldean. "Amak kezka bat zuen: tren. Kontuz ibiltzeko esaten zigun beti". Sustorik ez duela sekula bizi izan dio, hala ere, Oscarrek. "Trenarekin ez. Amak, hori bai, ez zuen nahi



izaten gure lagunak etxera ekartzetik. Beldurrez egoten zen beti, eta zer esanik ez kanpoko norbait zetorrean". Auzogune naturala Altzola dute Kanterapekoek eta hantxe egin dute bizimodua iriondotarrek. "Etxeko gazteena izanda, anaia zaharragoen edo gurasoen eskutik ibili naiz beti hemen aurrera eta atzera. Arriskua beti ikusi dugu, eta beti ikusi duenak tamaina ere hartzen dio", bota du.

Oscarren aitak Elgoibarko Arriola enpresan egin zuen lan, harik eta erretiroa hartu zuen arte, eta amak, Altzolako hotelean. Ez zuten sekula bizimodu errazik izan. Baserrira izanagatik, orturik sekula ez du ezagutu Oscarrek eta Kanterapeko azienda bakarria etxe buelta garbitzeko hartutako ardi-buru gutxi batzuk izan dira. Sail handirik ez dute, ingurua hezitzeko baimenik ere ez, baina Kanterapen izan diren animaliek ere sen bereziren bat izan dute beti, sekula ez direlako arriskuan jausi. "Esan dizut. Gu, etxekook, sekula ere ez", nabarmendu du, baina bikotekideak duela urtebete inguru izandako ezbeharrak ekarri dio gogora lagunak. "Ah, bai, Altzolako zebra bidean jo zuten Lucia. Istripua izan ostean udaletxean ere izan ginen, gure etxerako irisgarritasuna hobetzeko neurriren bat har zezatela eskatzeko, baina...". Gutxienez, trenbidea gurutzatzeko duen arranpa etxe alderago ekartzea eskertuko luke, tunelaren aho-zuloan due-lako gaur ia-ia. Lortzeko esperantzarik ez du, baina.

"Udaletxerako lanean ari zen gizarte laguntzaile batek izan zuen hemen sekula izan dugun sustorik handiena, baina orduan ere ez genuen ezer lortu... Trenbide-trabesa zapaldu, laban egin eta seko jausi zen; hortxe, tunelaren ondo-ondoan. Trenak bertan hilko zuen, Altzolako beste lagun bat parean egokitu izan ez balitz". Istripu lekua izan da, hala ere, Kanterape, eta sorospen lanak egi-tea ere egokitu izan zaio Oscarri berari ere. "Lagun onak ere egin ditut horregatik". Etxe pare-parean horma jo eta auto barruan konortea galduta gelditu zen soraluze arraren kasua aipatu du. "Sukaldean nenbilen lanean sekulako zarata entzun nuenean. Irten nintzen, saltoan pasatu nuen trenbidea eta moztu nuen trafikoa. Handik bi-hiru egunera mutil bat agertu zitzaidan etxean eskerrak ematen. Istripua izan zuenaren semea zen, eta gaur lagun handia dut".

USTEGABEAK

Ez da etxean agertu zaion bakarria izan. Lapurren bisita ere izan zuen birritan, anaia hil ondorentxoan. "Etxera iritsi nintzenean konturatu nintzen norbait ibilia zela. Oin arrastoak zeuden sukaldoko entzimerara gainean eta atzeko aldera ematen duen leihoa zabalik. Ertzainei deitu nien eta kanpora irteko agindu zidaten, eurek etorri arte ez igotzeko gora". Irisbide errazik ez du etxe honek, baina inorena dena beretzat nahi duenarentzat ez da traba hori. Ezta kobratu zain dagoenarentzat ere. "Ordainagiriak eta hutsik egin gabe iristen dira hona", dio errepide bazterrean erdi-jausian dagoen postera lotuta duen buzoari begira.

Ustekabeez eta arriskuez ari dela 1986an egunkarietako azal-orri askotara iritsi zen gertakaria ekarri du gogora. "Guardia Zibilez bete zitzaigun etxea". Istripua izan zuen egun horretan Euskal Herriko Itzuliko etapa grabatzen ibili zen helikopteroak. Goitentsioko kable bat jo eta lurrera amildu zen airekoa. 1986ko apirilaren 8an izan zen. Pilotua, Miguel Angel Troya, istripua gertatu zen lekuan bertan hil zen eta Euskal Telebistako bi behargin, Enrike lauzirika erregidorea eta Andoni Basabe kazetaria, larri zauritu ziren. "Orduan besteko zalapartarik ez dugu sekula izan hemen", esan du. Solasaldian zehar pozik bizi dela errepikatu du behin eta berriro. "Hemen nago ni trankil, zorionsu. Elgoibarren bi etxe emanda hau lagako ote nukeen galdetu izan didate, baina ez. Elgoibar osoa emanda ere ni ez noa hemendik inora".





Donostiako eta Canneseko zinemaldietako filmak ekarriko dituzte Ongarrik eta Udalak Elgoibarrera

- LEIRE URKIDI -

Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 66. edizioa datorren ostiralean inauguratuko dute eta egun bat lehenago hasiko da Elgoibarren iraileko zine zikloa. Iazko edizioan Donostian izandako hiru film hautatu ditu Ongarri Zine Klubak Udalarekin batera antolatutako ziklo berezira. Lau filmez osatuta dago bilduma, horietako bi Canneseko zinemalditik pasa ondoren iritsi ziren Donostiara: *El viaje de sus vidas* eta *Florida Project*. *El repostero de Berlin*, aldiz, Karlovy Varyk hautaturiko filma izan zen. Elgoibarren irailean ikusi ahal izango dugun lehen filma, *Lucky*, 2017ko pelikula onenatariko zerrendetan sartu zuten adituek.

'Lucky' (88 minutu)

Irailak 20 eta 21 (21:30)

Lucky, Estatu Batuetan, Mexikoko mugatik gertu bizi den 90 urteko gizon ateo bat da. Bere bizitzaren azken atalean bidaia bat abiatuko du bere burua hobeto ezagutu eta bizitzaren zentzuaz hausnartzeko. Pelikula hau protagonistaren, Harry Dean Stratonen, zine testamentua hil aurreko azken lana dela esan dute. Hori gutxi balitz, David Lynch zine zuzendaria aktore lanetan ikusi dugu berri ere. Lynchek Stratonek zuzendu zuen *Una historia verdadera* (1999) pelikulan eta Luckyren zuzendariak, John Carroll Lynchek, lan hau egiteko film hori berraztertu zuela adierazi zuen. 2017ko film onenatariko bat dela esan dute.



'El viaje de sus vidas' (112 minutu)

Irailak 22 (19:00 / 22:15),
irailak 23 (19:00)
eta irailak 24 (21:30)

Helen Mirren eta Donald Sutherland protagonistatzat dituen *road movie*a Cannesko Zinemaldiko sail ofizialean lehiatu ondoren *Perla* modura iritsi zen Donostiara iaz. Perla atalak nazioarteko beste zinemaldietan ikusitako film onenak biltzen ditu. Bi protagonistek, medikuengandik eta seme-alabengandik ihes egiteko bidaia bat egingo dute autokarabana zehar. Abentura horrek eguneroko bizitzaren ikuspuntua aldatuko die Alzheimerre bidaia lagun izaten jarraituko badute ere.



'Florida projects' (115 minutu)

Irailak 27 eta 28 (21:30)

Florida Project ere Perla sailean ikusi ahal izan genuen Cannesen izan zuen arrakastaren ondoren. Gainera, Willem Dafoe, 2005. urtean Donostia saria jaso zuen aktorea, Oscarretarako izendatu zuten film honengatik. Dafoek, motel baten jabearen papera egiten du, lehen turistak ziren nagusi, orain, aldiz, etxerik ez duten familien bizitoki ere bihurtu da. Horietariko bat, Moone, sei urteko neskatxa azkar bat da, eta bere amarekin bizi da bertan. Moone eta bere lagunak udako oporrak kontatzeaz gain, aisialdiko topagune den Orlandori buruzko beste ikuspuntu bat erakutsiko digu filmak.



'El repostero de Berlin' (104 minutu)

Irailak 29 (19:00 / 22:15),
irailak 30 (19:00) eta,
urriak 1 (21:30)

Culinary zinema atalak, gastronomia eta zinema batzen ditu Donostian. Karlovy Varyko (Txekiar Errepublika) zinema jaialdiak hautatu ondoren iritsi zen Donostiako Zinemaldira. Pelikula honek Thomas, pastelgile alemaniar gazteak, Orenekin duen maitasun istorioa du ardatz. Ez du asko iraungo, Oren, ezkondu dagoen gazte israeldarra, istripu batean hilko baita. Orduan pastelgileak Jerusalemara joatea erabakiko du bere maitalearen emaztea ezagutzera.



'Dantza' filmean parte hartu dute Elgoibarko hamabost dantzarik

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Irailaren 24an estreinatuko dute Victoria Eugenia antzokian Telmo Esnalen *Dantza* filma Donostiako Zinemaldian. Pelikula honetan Haritz Dantza Taldeko kide diren eta noizbait aritu izan diren hainbat dantzarik hartu dute parte. Juan Antonio Urbeltzen koreografiekin euskal dantzaren inguruan garatu den mundu sinbolikoa izango du erakusgarri filmak.

Dantza Donostiako Zinemaldiko 20 euskal produkzioetariko bat da. Esnalek zuzendu, Urbeltzek koreografia egin eta jantziez eta dekoratuez Koldobika Jauregi arduratu da. Dantzaria izandakoa da Telmo Esnal eta dantza bakoitzaren atzeko sinbologia ikertu ondoren iruditu zaio ildo narratibo bat sortzeko adinako sinbologia dagoela eta hala erabaki du filma egitea, dantzatutako fikzio bat, bati ere elkarriketarik gabea. Hortaz, *Dantza* filmak istorio bat kontatzen du dantzaz dantza; dantza bakoitzak zerbaitekin, baina bata bestearen atzean jarriz gero, istorio oso bat. "Bizitzaren zikloari buruzko istorioa da, bizirik irauteko borrokarena. Horretan, denboraren iragatea naturaren ibilbideak markatuko du. Eta dantza da hori kontatzeko hautatutako hizkuntza, filmaren ekoiztetxe den Txintxua Filmsekoek esan dutenez.

Leku bat, dantza bat

Filmean guztira 200 dantzari baino gehiago aritu dira, tartean Elgoibarko hamabost dantzari. Grabaziorik gehienetan hartu du parte Maialen Astigarragak eta leku bakoitzaren arabera oso ezberdina izan dela dio. Lehenengoa Arantzazun egin zuten, urtarrilean, gaueko hamabietatik aurrera: "Sekulako hotza pasatu genuen Irradaka dantzatzen". Hendaian grabatu zuten ezpata dantza. "Putzu bat prestatu zuten, hankak uretan, grabatzeko. Ez-



Elgoibarko dantzariak Leitzako grabazioan.

pata dantza egin genuen, baina ez da izan leku bakarrekoa, baizik eta hainbaten nahastea eta horiek josi behar izan dira". Aste Santuan Belchitera (Aragoi) joan ziren beste dantza bat grabatzera eta Leitzan 200 dantzari inguru elkartu ziren bi asteburutan festa bat islatu nahi zutelako soka-dantza egiten.

Tradizioaren irudi berria

Esperientzia berria izan da filma Maialen Astigarragarentzat. "Ez dakit besteek nola bizi izan duten, baina niretzat aukera bat izan da pelikula bat nola egiten den barrutik ikusteko. Bestalde, guk dantzak nola bizi ditugun bizitzetik beste era batera bizitzera pasatu naiz. Batez ere arropen aldetik. Beraiek eman dioten aire edo jitea berezia izan da. Koldobika Jauregik diseinatutako arropak eta dekoratuak, guk erabili ohi ditugun arropa zuri-gorrietatik nahikoa aparte daude".

Eire Vila ere izan da filmean eta berezia izan da honentzat ere. "Zuzeneko

emanaldiak egiten ditugu, baina taula gainean edo plazan dantza egindakoan bukatzen da. Film baterako, ordea, angulu batetik baino gehiagotik grabatu behar da eta behin baino gehiagotan".

Dantza tradizionala beraiek ezagutzen duten moduan ez du islatzen Eire Vilaren ustez. "Dantza horien nolabaiteko interpretazioa da". Urbeltzek dantza tradizioari buruz duen ikuspegia agertzen duen pelikula dela dio Maialen Astigarragak. "Gauza batzuk bagenekizkien arren beste batzuk ere ikasteko balio izan digu".

Elkarriketarik gabeko komunikazioa izanik jende bakoitzaren interpretazioa ezinbestekoa izango dela uste du Astigarragak. "Musika eta euskaraz kantatutako abestiak daude, baina gidioak ez zuten agertzen dantzariak esan beharrekoa, dantzatutako beharrekoa baizik. Beraz, ezberdina izango da". Zinemaldian aurkeztuko duten film hau abenduan ikusi ahal izango dugu zinema aretoetan.

Frankistek hildako elgoibartarrak omenduko dituzte irailaren 22an

Olasoko hilerrian dagoen Kolunbarioan omenduko dituzte frankistek hildako gudari, miliziano eta zibil elgoibartarrak, bihar zortzi, irailaren 22an, 11:00etan. Memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak antolatu du omenaldia eta ekitaldirako hildakoen senideen bila ari dira. Frankistek hildako elgoibartarren zerrenda bat ere osatu dute eta publiko egin ere bai, baina argi laga dute ez dela zerrenda itxia; hau da, litekeena dela zerrenda luzeagoa izatea eta horregatik, laguntza eskatu diete herritarrei zerrenda osatzeko. Horretarako, telefono zenbaki bat eta e-posta helbide bat jarri dituzte herritarren eskura: 605 772 285 / elgoibar1936@gmail.com.

- AINARA ARGOITIA -

HILDAKOEN ZERRENDA (Berdez daudenen senideen edo haien berri izan zutenen bila ari dira)

- ◆ **Andres Alberdi Baskaran.** Pontevedrako San Simon kontzentrazio eremuan preso zutela hil zen.
- ◆ **Angel Etxaniz Astigarraga.** Elgoibartarra. Gipuzkoako komandantziako milizianoa. Gernikan hil zuten.
- ◆ **Angel Suarez Etxebarria.** Elgoibartarra. Durangoko bonbardaketan hil zuten, 1937ko martxoaren 31n.
- ◆ **Ascensio Gabilondo Agirre.** Amuategi batailoikoa. Elgoibartarra. Zugastietan hil zuten 1937ko apirilaren 30ean.
- ◆ **Domingo Rementeria Gurtubai.** Euskal Milizietako kidea. Sortzez mendararra. Legution hil zuten 1936ko abenduaren 2an.
- ◆ **Francisco Bergara Azurmendiarreta.** 42 urte, eibartarra, baina Elgoibarren bizi zena. 1937ko apirilaren 19an fusilatua zuten, Braveliñan.
- ◆ **Hilario Arriola Iriondo.** Zapadores-Minadores batalloikoa. Mendarokoa. Eibarren hil zuten, 1937ko martxoaren 10ean.
- ◆ **Jose Lejardi Lizundia**
- ◆ **Ladislao Arrillaga Irusta.** Gernikako bonbardaketan hil zuten 1936ko apirilaren 26an.
- ◆ **Lazaro Gabilondo Olañeta.** Markinako ordena publikokoa. Elgoibartarra. Markinan hil zuten 1936ko urriaren 26an.
- ◆ **Marcelino Elorza Arrizabalaga.** Bonbaz hil zuten San Franzisko kalean, 1937ko otsailaren 7an. 54 urte zituen.
- ◆ **Pedro Maria Barrenetxea Areta.** Mendarokoa. Milicias Popularesetako kidea. 1936ko abuztuaren 12an hil zuten.
- ◆ **Pedro Telleria Askasibar.** Elgetara ezkonduko elgoibartarra. 1937ko apirilaren 25ean hil zuten eta haren emazte Francisca ere hil zuten erreketeez. Haien 13 urteko alaba Anttoni bortxatu egin zuten.
- ◆ **Purificacion Iturzaeta Galtzacorta.** Bonbaz hil zuten Elgoibarren.
- ◆ **Roke Muguerza Sasieta.** Karl Liebknecht batailoi komunista sargentua. Valdecillasen hil zen 1937. urteko ekainaren 25ean. 35 urte zituen.
- ◆ **Teodora Unzueta Unzueta.** Elgoibartarra, Durangoko bonbardetan hil zuten, 1937ko martxoaren 31n.
- ◆ **Tomas Anzola Agirre.** Gatzaran Matxinada batailoiko gudaria. Otxandion hil zuten, 1937ko martxoaren 31n.
- ◆ **Agustina Irigoien Manzisidor.**
- ◆ **Alberto Iriondo Uncilla.**
- ◆ **Alejandro Retolaza Larreategi.**
- ◆ **Andres Lejardi Lisundi.** Amuategi batailoikoa. Elgoibartarra. Bilbon hil zuten, 1937ko apirilaren 25ean.
- ◆ **Angel Osoro.**
- ◆ **Aniceto Albizu Etxabe.** Ariztimuño batailoiko gudaria. Elgoibarren jaioa. Albertian hil zuten, 1937ko martxoaren 31n.

'Emeek Emaná': 36ko gerra eta frankismoa andren aurpegieta

Bakerako, berdintasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza demokratikoak memoriaren aldeko lana egitea exijitzen du, eta horixe egin nahi izan dute Emeek Emaná erakusketaren sustatzaileek, Intxorta 1937 Kultur Elkar-teak eta Mauro Saravia argazkilaria txiletarrak. Erakusketa honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du eta Elgoibar 1936 taldearen eta Elgoibarko Udalaren eskutik, Elgoibarren ikusteko aukera izango da bihartik hilaren 29ra, Kultur Etxeko erakusketa gelan (Astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era).

36ko gerra eta frankismoa kontatzeko emakumeengan jarri dute argia, gerra lubakietako borrokatik harago doala nabarmenduz. Izan ere, erakusketaren sustatzaileek argi dute memoria



ariketa egin denean gerraren kontaktuzun partziala egin dela sarri, emakumeek bizi eta sufritutakoa ahanzturan gelditu izan delako. Gerra eremuaren, erbestearen, torturaren, kartzelaren, errepresioaren eta bizirik irauteko estrategien inguruko narrazio eta bildumak jaso dituzte. Bizirik irauteko strategiak, hain justu ere, bizirik iraun nahia delako erakusketarako euren aurpegia jarri duten emakume guzti hauek batzen dituen. Era berean, emakumeen ikuspuntutik antolatutako egitura sozialerako planteamendu eta aktibismoaren erakusgarri ere bada argazki-erakusketa hau. Herri ezberdinetako emakumeak daude

erretiratutakoaren artean, eta tartean bada gure inguruko hainbat ere, Eibar eta Elgetakoak esate baterako.

Argazkiak Mauro Saravia argazkilaria txiletarrak egin ditu, Intxorta 1937 Kultur Elkar-tearen eskariz. Oroimen historikoaren eta giza eskubideen inguruko lanetan dihardu gaur egun Saraviak, eta bi erakusketa ibiltari ere baditu *Emeek Emaná* honez gain: *Azken batailoia*, bizirik egondako eta Eusko Gudarostean parte hartutako gudari eta milizianoei eskainitako argazki-bilduma, eta, *Gure izaeraren ispilua*, Jose Antonio Agirre lehendakariari eskainitakoa.

- ◆ **Celestino Onaindia.**
- ◆ **Felix Gastesi.**
- ◆ **Francisco Agirregomezkorta Etxezarreta.**
- ◆ **Gabilondo Egigurentxiki** Egiguren-txiki baserrikoa.
- ◆ **Hipolito Sanchez Etxaburu.** Zabalbide batailoikoa. Elgoibarkoa. Solluben hil zuten, 1937ko maiatzaren 10ean.
- ◆ **Jose Alberdi Arrieta.**
- ◆ **Jose Alberdi Etxaniz.**
- ◆ **Jose Luis Caño Gomez.** Maltzagakoa. Amuategi batailoikoa. Zugastietan hil zuten, 1937ko maiatzaren 13an.
- ◆ **Jose Txurruka Zabaleta.**
- ◆ **Josefa "La Extremeña".** 1937ko otsailaren 7an hil zuten, bonbaz.
- ◆ **Josefa Arrillaga Arrizabalaga.** Elgoibarren jaioa. 1937ko martxoaren 30ean hil zuten erreketek Soroluzen.
- ◆ **Juan Mugertza Sasieta.**
- ◆ **Julio Gabilondo Agirre.** Markinako orden publikokoa. Elgoibartarra. Markinan hil zuten, 1936ko azaroaren 8an.
- ◆ **Justo Ajuria.**
- ◆ **Laskurain.**
- ◆ **Luis Astigarraga Arana.** Amuategi batailoikoa. Elgoibartarra. Eibarren hil zuten, 1936ko irailaren 16an.
- ◆ **Luis Gomez Ortega.** Cultura y Deporte batailoikoa. Mendaroarra. Bizkargin hil zuten, 1937ko maiatzaren 15ean.
- ◆ **Manuel Larrea Alberdi.** Amuategi batailoikoa. Elgoibartarra. Eibarren hil zuten, 1936ko abenduaren 2an.
- ◆ **Mariano Arriaga.** Mendarokoa. Fusilatu egin zuten.
- ◆ **Marina Abascal Gabilondo.** Gernikako bonbardaketan hil zuten 1936ko apirilaren 26an.
- ◆ **Martin Etxebarri Chasco.** Rusia batailoikoa. Elgoibarren jaioa Tolosan hil zuten, 1936ko abuztuaren 2an.
- ◆ **Miguel Garijo Holson.** Elgoibarren jaioa, Bilbon bizi zen. 1938ko ekainaren 15ean fusilatu zuten Ezkabako ihesean.
- ◆ **Mikaela Lete.**
- ◆ **Pedro Arrieta Larrañaga.** Elgoibartarra. Deban fusilatu zuten.
- ◆ **Pedro Julian Agirre Gallastegi.** Elgoibarren jaioa Zumaietan bizi zen. 1936ko urriaren 1ean fusilatu zuten, Meagan.
- ◆ **Ramon Unzilla Gonzalez.**
- ◆ **Tomas Agirregomezkorta Elizburu.**
- ◆ **Xalbador Izagirre Etxaniz.**
- ◆ **Zacarias Aspiazu Kruzalegi.** Ibilgailu blindatuen batailoikoa. Elgoibartarra. Barazarren hil zuten, 1937ko apirilaren 5ean.



▶ OMAR AIZPURU, IVAN GARCIA ETA JON BASURTO

C.D. ELGOIBARREKO ENTRENATZAILEAK ETA PRESIDENTEA

Omar Aizpuru eta Ivan Garcia dira Haundiko lehen eta bigarren entrenatzaileak, hurrenez hurren. Taldeko jokalaria ere bada Garcia, hamalau taldetan jokatu duen eskarmentu handiko futbolari elgoibartarra. Biek in eta C.D. Elgoibarreko presidente Jon Basurtorekin elkartu gara Ohorezko Erregional Mailan hasi duten denboraldi berriaz berba egiteko. Haundik garaipen batekin hasi du Liga txapelketa, Zarautzen 0-1 irabazita.

- ASIER ORBEA -

“Bizpahiru urtean oso talde polita izan dezake Haundik”

◆ Ohorezko Erregional Mailara igo eta gero, ze itzaropenekin hasi du Haundik denboraldi berria?

Omar Aizpuru: Partida guztietan lehiakorrak izatea da gure buruari jarri diogun helburua. horixe da taldeari eskatuko diodan gutxienekoa. Partiduen 80. minutura irabazteko edo berdintzeko aukerakin ailegatzeko bagara, puntuak batzeko moduan izango gara, eta gertuago izango dugu gure helburu nagusia, mailari eustea.

◆ Maila batetik bestera ze alde dago?

O.A.: Alde handiena da iaz partida guztiak irabaztera behartuta geundela, nolabait esatearren. Geu ginen beti aurrea hartu behar genuenak, mailaz igotzea zelako gure helburua. Irabazi behar horrek presak eta urduritasunak ekartzen ditu zenbaitetan. Orain, alderantziz izango da partida askotan, goian egotera deituta dauden bost edo sei talderen aurka bereziki. Euren dagokie ekimena. Gure armak erabili beharko ditugu aurkariari min emateko, badauzkagulako. Horiek lantzen dihardugu eta bide onetik goazela uste dut.

◆ Sentsazio onak dituzu.

O.A.: Aurreko denboraldiko dinamika positiboarekin jarraitzen

dugu. Taldea ondo entrenatzen ari gara, gustura gaude egindako prestaketarekin, eta sentsazio on horiek ahal dugun bezainbeste luzatu behar ditugu. Hala bada eta lehen itzuli ona egiten badugu ez genuke mailari eusteko arazorik eduki behar, baina... gurea ematen badugu bakarrik lortuko dugu.

◆ Aurreko denboralditik hona gutxi aldatu da taldea. Nahi zenuen taldea osatu duzue?

Ivan Garcia: Bloke berdinari eutsi nahi genion eta mantendu dugu, iazko berdina baita %90ean. Argi genuen jokalaria talde hau balekoa zela, maila bat gorago jokatzeke ere bai. Ikasteko asko duten arren, ilusioa dute eta gazteak dira. Hori bai, maila bat gorago jokatu behar genuenez, taldea indartzeko hiru fitxaketa egin ditugu, momentuz: Aitor Azpiazu azpeitiarra, 25 urteko hegaleko jokalaria, iaz Zumaiakon jokatu zuen Asier Badiola atezain elgoibartarra eta Mikel Rauleaga, Ohorezko Mailan esperientzia duen 27 urteko zarautzitarra. Nabarmendu nahi nuke gure taldean bost edo sei jokalarik izan dituztela beste talde batzuetara joateko eskaintzak, soldatak ordaintzen dituzten taldeenak. Elgoibarrek ez du soldatarik ordaintzen, primak bakarrik. Hala ere, gurekin gelditzea erabaki dute. Soldata baino beste gauza batzuk

aintzat hartu dituzte. Maila honetan badaude baina soldatak ordaintzen dituzten zenbat talde: Eibar, Tolosa, Aretxabaleta, Hernani... Ez gara 1.000 euroko soldatez berbetan ari, hilean 200 bat euro kobratzeaz baizik. C.D. Elgoibarrek bestelako baliabideak eskaintzen ditu. Mintxetako instalazioez gainera, arropa guztia garbitzen zaie jokalariei eta fisioterapeuta bat ere badaukagu. Gure mailan diharduten beste klub askok ez dute horrelakorik eta jokalariek baloratzen dituzte, aldagelako giroarekin batera. Azpiegitura aldetik 2. B mailako talde bat modukoa da Haundi, soldatarena kenduta.

♦ **Epe ertainera egina duzue planifikazioa. Mailari eustea da helburua aurten.**

I.G.: Bai, futboleko zaila da urte batetik bestera egindako lanari probetxua ateratzea. Hirugarren urtez arituko gara elkarrekin Haundiko jokalariek. Azken denboraldia eta gero, taldeak badaki Omarrek zer eskatzen dion eta Omarrek badaki taldeak zer eman dezakeen. Sekulako bigarren itzulia egin genuen iaz. Hamabost partidatan 37 puntu atera genituen! Aurten aukera dugu mailari eusteko, elkarrengandik gehiago ikasteko eta aurrerapauso bat emateko. Gauzak bide onetik badoaz, hurrengo denboraldian izango gara Hirugarren Mailarako igoera lortzeko hautagaiak. Bizpahiru urtean oso talde polita eduki dezake Elgoibarrek, daukagun taldea eginagoa egongo delako eta beheko mailetatik ate joka ditugulako kalitatezko jokalariek. Indarrean datoz. Iaz errejonial taldeko lau jokalariek eta bost jubenilek egin zuten debuta Haundirekin. Maila badute; esperientzia bakarrik falta zaie.

♦ **Egina duzuen ibilbide-orri horretan guztia bideratzea izango da entrenatzaileon lana.**

I.G.: Omarren fitxaketa funtsezkoa izan da. Lehiakorrik izaten ikasi dute jokalariek berarekin. Jon (Basurto) presidentearen eta nire apustua izan zen Omar Elgoibarrera ekartzea. Entrenatzaile gaztea da, ilusioz gainezka dago eta transmititu egiten du. Klubean nahi eta behar genituen ezaugarriak ditu.

♦ **Goian ibiliko diren bost talde aipatu dituzu lehen, Omar.**

O.A.: Azkoitiko Anaitasuna, Tolosa, Hernani, Eibar Urko eta Aretxabaleta segurutzat jotzen ditut nik. Aurreneko postuengatik borrokan ibiliko dira.

♦ **26 urterekin entrenatzaile gaztea zara. Nondik datorkizu entrenatzaile izateko gogo hori?**

O.A.: Umetatik, aita ere entrenatzaile baitzen. 17 urte nituen arte jokatu nuen futboleko Ikasberrin, orkatila puskatu nuen arte. Futboleko gehiago ezingo nuela jokatu esan zidaten. Ni betidanik izan naiz oso futbolzalea eta ezin nuenez egun batetik bestera futbola laga, entrenatzaile izanda bete nuen hutsune hori. Tituluak atera eta Ikasberrin hasi nintzen entrenatzaile, kadeteetan bi urte, jubenilekin hiru urte eta bost urtean entrenatu nuen Ikasberri Preferrente mailan, hona etorri nintzen arte.

♦ **Azpeititik Elgoibarrera etorrita, zer ikasi duzu hemen?**

O.A.: Etorri nintzen maila berdinean jokatzen ari ziren Ikasberri

“Jokalariek lehiakorrik izaten ikasi dute Omarrekin”

- Ivan Garcia -

eta Haundi. Biak dira klub txikiak, baina historia handiagoa dauka C.D. Elgoibarrek. Aurrerapauso bat izan zen nire ibilbidean. Alderik handiena da hemen presio puntu bat eduki dugula. Gauzak ez ziren ondo hasi. Etxera joan eta buruari buelta asko ematen nizkion hasieran. Horrelakorik ez nuen bizi Ikasberrirekin. Kirolariok beti kudeatu behar

dugu gure buruari jarritako presioa, baina beste kontu bat da kanpotik datorren presioari aurre egitea. Aditzen eta entzuten ikasi behar da. Hori ematen ikasi dut batik bat hemen. Ivanek duen eskarmentua laguntza handia izan da. Tandem ona osatu dugu taldeari tira egiteko.

Jon Basurto: Hasieran, gauzak oker zeudenean, denetarik entzun behar izan zuten. Ez zen batere erraza izan. Denboraldi gogorra bezain polita izan zen aurrekoa. Maila galdu osteko denboraldian berriro igotzea oso zaila zela bagenekien. Talde gutxik lortzen dute. Gabonetako etenaren ostean, baina, partidak bata bestearen atzetik irabazten hasi ziren eta denok gora etorri ginuen animoz.

♦ **Gaztea bai, baina izaera gogorreko entrenatzailea da Omar. Aulkitik partidak nola bizi dituzun ikustea besterik ez dago.**

O.A.: Hori fabrikatik dator nirekin. Jokalari nintzenean ere agintzea gustatzen zitzaidan. Kapitaina nintzen.

♦ **Bigarren entrenatzailea izateaz gainera, jokalaria ere bazara zu, Iban. Nola uztartzen dituzu bi zereginak?**

I.G.: Duela hiru urte hasi nintzen bi lanotan. Batean zein bestean Omarri laguntzea da nire zeregina, zelai barruan, aulkian edo aldagelan. Taldeko jokalaria beteranoena naizenez, eta hamalau taldetan ibilia, aldagela kudeatzea dagokit. Gutxiago jokatzen duten jokalariek animatu, ilusioa mantentzen lagundu, jarrera zuzenak izan ditzaten zaindu... denetik pixka bat. Omar eguneroko entrenamenduz eta taktikaz arduratzen da.

♦ **Elgoibarko 13 jokalaria daude Haundin.**

J.B.: Lehen taldean ahal den jokalaria gehien egotea da gure filosofia, taldea eta zaleak elkar hartuta egoteko modu onena delako. Bi baldintza jartzen ditugu: batetik, elgoibartarra izatea eta futboleko ondo jokatzea; eta, bestetik, jarrera eta konpromiso eredugarriak izatea. Klubaren filosofiarekin jarraituz, kadeteetatik behera formazioari garrantzi handiagoa ematen diogu lehiakortasunari baino. Futbol Eskolarekin lortu nahi duguna da ume guztiek izan ditzatela aukerak futboleko jokatzeke. Horregatik eskaintzen ditugu deskontuak eta erraztasunak kuotak ordaintzerakoan. Nesken futbola sustatzeko ere gogor ari gara lanean, baina zailtasunak izaten ari gara. Eskubaloiak indar handia du Elgoibarren, urte askoan lan oso ona egin dutelako. Hala, neska gazte askok eskubaloia aukeratzen dute futbolaren aurretik. Une honetan hamasei bat neska dauzkagu eta gehiago izan daitezkeen lanean jarraituko dugu, jokalaria kopuru handiagoa behar baitugu talde bat sortzeko.



Usurbilek irabazi du estreinako Elgoibar Hiria eskubaloi txapelketa

Usurbilgo eskubaloi taldea da estreinako irabazlea Sanlok kadete mailako eskubaloi taldeentzako antolatu duen lehendabiziko Elgoibar Hiria txapelketan. Harrobiarekin lanean diharduten hiru eskubaloi talde gonbidatu zituen Sanlok Elgoibar Hiria eskubaloi txapelketako lehen edizioan lehiatzera. Zumaia, Iruñea, Usurbil eta Elgoibarko taldeek jokatu zuten txapelketa IMH kiroldegian, joan den zapatuan eta domekan. Usurbildarrek jokaturako hiru partidak irabazi zituzten. Zumaiaiko Pulpok lortu zuen bigarren postua, bi partida irabazita. Elgoibarko taldeak egin zuen hirugarren, partida bat irabazi eta bi galduta, eta Iruñeko Anaitasuna sailkatu zen laugarren postuan, partidarik irabazi gabe. Txapelketako jokalaria onenaren saria Usurbil taldeko Jon Mikel Elexperi eman zioten eta Pulpo taldeko Aratz Arrietak jaso zuen atezain onenaren saria.

Sanloren garagardo azoka egingo dute Maalan, domekara bitartean

Egunean hasi zen SanloBeer garagardo jai Maalako parkean. Jan edanaz gainera, zuzeneko musika emanaldiek, bingoak edo dantzaldiek girotuko dute Sanlo eskubaloi taldearen seigarren garagardo azoka, domekara bitartean. Hainbat garagardo (Keler, Free Damm, Bock Damm, Oro Bilbao, Estrella Damm, Radeberger, eta Pabst Blue Ribbon) edateko aukera izango da azokan, eta horrez gainera, egunero ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak eskainiko dituzte. Gaur arratsaldean pintxo potea ere egingo dute ganbekin. Azken egunean, domekan, paella erraldoia prestatuko dute. Zuzeneko musika emanaldiei dagokienez, Eibarko ZZTORPES taldeak ZZTop taldearen kantak joko ditu gaur gauean, 23:00etatik aurrera. Melissa And The Jacks taldeak zapatu gauean (23:00) eskainiko du saioa.



Aurreko urtean baino 9.000 erabiltzaile gehiago izan dira Mintxetako igerilekuan

Aurtengo udan iazkoan baino eguraldi hobea eguzkitsua goa- egin duela ondorioztatu daiteke Udal Kirol Patronatuak jakinarazi dituen Mintxetako igerilekuei buruzko datuei erreparatuz gero. Mintxetako igerilekuek 42.000 erabiltzaile izan dituzte, iaz baino 9.000 gehiago (2017an 34.000 erabiltzaile izan ziren eta 2016an 40.400). Ekainaren 6tik irailaren 9ra bitartean egon dira zabalik Mintxetako igerilekuak.

Pyrenees Stage Run bikotekako lasterketa irabazi du Ainhoa Lendinezek Igone Camposekin batera

Zazpi etapatan 240 kilometro (15.000 metroko desnibel positiboa) egin dituzte Pyrenees Stage Run (PSR) mendiko lasterketa amaitzea lortu duten mendizaleek. Bost parke natural gurutzatu dituzte Andorrako eta Herrialde Katalanetako Pirinioetan barrena osatu duten ibilbidean. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinezek eta Igone Camposek osatutako bikotea, Mendikoloreak, gailendu zen. Guztira, 44 ordu 53 minutu eta 23 segundo behar izan dituzte zazpi etapak egiteko, eta bost etapatan gainera eurak izan ziren azkarrenak. Mirjam Steunebrink eta Martine Hofstede sailkatu ziren bigarren postuan, irabazleengandik bi ordu eta 9 minutura. "Pozik gaude oso. Saikapenetik harago gure helburua bete dugulako, Salardúra (helmuga) ailegatzea. Zalan-tza asko genituen, beldur handia ere bai, baina lortu dugu. Asko gozatu dugu eta antolakuntza paregabea izan da, orain arte eza-gutu dugun apartena. Badakigu esperientzia hau bizi osorako go-



goan geldituko zaigula", adierazi du Ainhoa Lendinezek. *barren.euse*-ko komunitatean irakurri ditzakezue Lendinezek berak etapaz-etapa lasterketa egiten ari zirela idatzitako kronikak.

Mintxeta Atletismo Taldean parte hartzeko izen-ematea zabalik dago



Mintxeta Atletismo taldeko kideek aste honetan hasi dituzte 2018-2019 denboraldiaren entrenamenduak. Era berean, taldera batu nahi dutenek orain dute aukera. Taldeko kide izan nahi dutenek mintxeta@mintxeta.com helbidera idatzi behar dute edo 630 291 758 telefono zenbakira deitu, eta Daniz galdetu. Astelehenetan, eguaztenetan eta barixakuetan egiten dituzte entrenamenduak, 18:30etik 20:00etara, Mintxetan. Zortzi urtetik hasi eta senior-promesa mailara arteko atletek dihardute taldean. Mintxetara baten diren lagunek Mintxeta kirol gunera sartzeko aukera, eskolarteko kirol aseguruua eta klubaren kirol arropa eskuratuko dituzte. Klubeko fitxa lortzeko %50eko beherapenak ere eskaintzen dituzte familia bereko bi kide edo gehiagok izena ematen badute.

Emaitzak

FUTBOLA

Zarautz 0 – Haundi 1 (Ohorezko Erregional Maila)

ESKUBALOA

Elgoibar Sanlo 17 – Pulpo 28 (Elgoibar Hiria txap.)

Usurbil 43 – Anaitasuna 21 (Elgoibar Hiria)

Elgoibar Sanlo 31 – Anaitasuna 26 (Elgoibar Hiria)

Pulpo 27 – Usurbil 38 (Elgoibar Hiria)

Pulpo 34 – Anaitasuna 25 (Elgoibar Hiria)

Elgoibar Sanlo 21 – Usurbil 31 (Elgoibar Hiria)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 15

12:00 Elgoibar – Urki B (Kad. 1. maila)

17:00 Haundi – Tolosa (Oho. Erreg.)

Domeka, 16

11:30 Elgoibar – Zestoa (Jub. 1. maila)

Ume eta helduentzako xake ikastaroak

Zortzi urtetik aurrerako umeentzako eta helduentzako xake ikastaroak eskainiko dituzte urritik ekainera bitartean Elgoibarko Xake Taldekoek Pedro Mugurutza kalean duten lokalean. Mikel Leon izango da hastapen mailako ikastaroko gidaria eta xakeko nazioarteko maisua den Alejandro Franco xakelariak irakatsiko die maila handiagoa duten xakelariari. Umeak eta helduak ez direla gela berean egongo zehaztu dute antolatzaileek. Informazio osoagoa jasotzeko eta izena emateko fidodidomik@hotmail.com helbidera idatzi behar da edo 637 737 113 telefono zenbakira deitu edo whatsapp bidali.

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan jarduteko gertu. ☎ 631 975 260

Tabernan, sukaldari lanetan, aritzeko prest. Pertsona nagusiak zaintzen ere lan egiteko gertu.

☎ 659 513 578

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile modura ere jardungo nuke.

☎ 632 875 808

Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Txakurrak paseatzera ateratzeko ere prest nago. Orduka aritzeko gertu.

☎ 675 965 130

Garbiketan edo umeak zaintzen egingo nuke lana. Orduka aritzeko prest. Txakurrak paseatzera ateratzeko gertu.

☎ 605 598 999

Adinekoen zaintzan lan egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka ere aritzeko gertu.

☎ 661 814 324

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan gauzez edo astebukaretan.

☎ 632 733 573

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan, orduka.

☎ 688 842 791

Adinekoak eta umeak zaintzen nahiz garbiketan egingo nuke lan. Etxeko langile moduan, edo orduka (gauak ere bai).

☎ 631 891 709

45 urte ditut eta goizez etxeak garbitzeko prest nago.

☎ 636 223 142

Eskola partikularrak ematen ditut, DBH 3,4 eta Batxilergo mailetako ikasleentzat.

☎ 618 245 057

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile aritzeko prest.

☎ 685 036 902

Adinekoak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Etxeko langile aritzeko prest.

☎ 631 200 936

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile arituko nintzateke.

☎ 642 893 529

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.

☎ 632 326 679

Adinekoak edo umeak zaintzen zein etxeko garbiketetan egingo nuke lan.

☎ 643 158 766

Umeak arratsaldeetan zaintzen lan egiteko prest. Elgoibartarra eta euskalduna naiz.

☎ 687 114 707

Arabiera eta frantsesa irakasteko eskola partikularrak emateko prest Mendaron.

☎ 660 871 033 edo 620 665 224

Adinekoak zaintzen edo garbiketan lan egiteko prest. Orduka.

☎ 602 625 718

DBH2 mailako klase partikularrak euskeraz emango ligukeen pertsona baten bila gabiltz.

☎ 602 047 812

Eskaerak

Elgoibarko denda baten lanerako neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali curriculumak helbide honetara: *elgoibarko.denda@hotmail.com*

Elgoibarko taberna batek euskeraz hitz egiten duen esperientziadun zerbitzaria behar du.

☎ 649 963 892

DBH2 mailako eskola partikularrak euskeraz emango lituzkeen pertsona baten bila gabiltz.

☎ 617 386 198

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 677 259 560

Etxebizitza alokagari Elgoibarko herrigunean. Hirugarren solairua da eta ez dago igogailurik. Urriaren 1etik aurrera sartzeko moduan.

☎ 688 650 060

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruan.

☎ 669 339 529

Etxebizitza bila ari naiz Elgoibarren. Hiru logelakoa eta ekonomikoa.

☎ 632 839 617

BESTELAKOAK.....

San Bartolome jaietan belarritako bat galdu nuen Kalegoen plazatik Herriko Antzokira bidean. Norbaitek topatu badu eskertuko nioke telefono zenbaki hauetako batera deitzea.

☎ 943 531 648 / 669 916 148

Ume txiki baten bizikleta utzi genuen Kalegoen plazan irailaren 1ean eta bila joandakoan ez zegoen. Norbaitek jaso baldin badu deitu, mesedez.

☎ 679 624 518

IBILGAILUAK.....

Zortzi metroko belauntzia Zumaiñan) *Furia 25*, salgai edo Camper furgoneta baten truke.

☎ 688 851 581

KINTA OSPAKIZUNAK.....

1948an jaiotako elgoibartarrek ospakizuna egingo dute urriaren 6an. Hitzordua: 12:00etan, Kalegoen plazan. Interesdunek 65 euro sartu urriaren 4a baino lehen Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: ES 3835 00723 0071132820. Kontzeptua: 1948an jaiotakoak.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Federación Vasca Administradores Locales Empresarios



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean barruko patio bat dago eta hainbat etxebizitzatako leihoak hara begira daude. Patioa komuna da, baina beheko solairuko lokal batekoek baino ezin dezakete erabili. Lokal horretako maizterrek patioan eguzkitakoa ipini du ia patioaren adinako neurriak dauzkana, beraz, toldo bat dirudi. Tamaina dela-eta patioa horma batera lotzeko ainguralekuak ipini ditu. Eguzkitako horrek traba egiten die lokalaren goiko solairuko bizilagunei. Izan ere, patioa begira jarritako esekitokiak erabiltzen jarraitzea zailtzen du. Jakin nahi nuke eguzkitako hori ipini daitekeen edo ezin bada kentzea eskatu dezakegun.


Nire ustez patioaren barruko aldearen kanpoko itxura aldatu da eta instalazioaren tamaina kontuan hartuta jarri aurretik bizilagunen komunitateko baimena jaso behar luke.

Hala ere, aldaketa ez da obretan egiten den itxituren parekoa. Nire iritziz, eguzkitako hau ipini aurretik jakin egin beharko luke komunitateak, denen intereseko gai orokorra izanik erabaki bat hartzeko.


Ondorioa: Eguzkitakoaren tamaina handia denez eta hau ipintzeko fatxadan ainguralekuak egin dutenez, gomendagarria litzateke komunitatearen akordioa edo baimena ezinezona edo haserre saihesteko eta hainbat jabek esekitokiak erabiltzeko traba izan ez dezaten.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ga-razi**, igandearen 7 urte beteko dituzulako. Muxu potoloa familiako partez.



Gaur 7 urte, **Luken**! A ze mutil puska egin zaren dagoeneko. Zorionak, maitia! Muxu bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Beñat**, zure 11. urtebetetzian. Muxu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **Asier**, zure bederatzigarren urtebetetzian. Patxo handi bat! Etxekoak.



Zorionak, **Ene-ritz**, irailaren 17an 10 urte beteko dituzulako. Besarkada handi bat etxeko partez, eta bereziki Nagoreren partez.



Zorionak, **Paul**! Asko maite zaitugu! Muxu potolo bat!




Zorionak, **Julen**, zure seigarren urtebetetzian, familiako guztiaren partetik, muxu handi bat.



Zorionak, **Mar-kel**, 12. urtebetetzian! Familiako eta bereziki Endika eta Danelen partez. Segi beti bezain jator.




Zorionak, **Ruben** eta **Olaia**! Bihar, zuen ezkontza eguna oso zoriontsua izan dadila. Guztiok primeran pasako dugu. Maitasunez, familiaren partez.



Zorionak, **Lea** eta **Danel**, zuen lehenengo urtebetetzian! Muxu asko-asko etxeko guztiaren partetik.



Zorionak, bikote! **Sara**, abuztuaren 6 urte bete zenituelako, eta **Erik**, gaur zure urtebetetze eguna delako. 9 urte. Ondo-ondo ospatu!



Zorionak, neska! **Maule**, abuztuaren 19an 2 urte bete zenituelako eta **Ihart**, pasa den igandearen 9 urte bete zenituelako. Familiako partez.



Zorionak, **Xuban**! Asko maite zaitugu, polittori!



Ongi etorri, **Ibon Iriondo Mora**. Abuztuaren 30ean jaio zinen. Muxu asko familia osoaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira. BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



IKASBAI akademia

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaelgoibar@gmail.com

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

ARMAZOIA + LENTEAK **89€**-TIK



VOGUE
EQUEWED

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

RPS 183/12

15 ZAPATUA

18:30 Erakusketa: *Emeek emana*. Ordegitia: astelehenetik zapatua 18:30etik 20:30era. Irailaren 29ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzaileak: Elgoibar 1936 eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak.

18 MARTITZENA

19:00 Meditazioa eta jardunaldia: *Burua isilduz*. Gidaria: Jose Cruz Igarua. Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Isiltasun Eskola.

20 EGUENA

19:00 Euskaraldia: Hamaikakoaren aurkezpena eta lokalaren inaugurazioa. Kalebarren plazan. Antolatzaileak: Elgoibarko Euskaraldia Taldea, Elgoibarko Udala eta Danobat Group.

21:30 Iraileko zine zikloa: *Lucky*. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Ongarri zine kluba eta Elgoibarko Udala.

21 BARIKAKUA

21:30 Iraileko zine zikloa: *Lucky*. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Ongarri zine kluba eta Elgoibarko Udala.

21:30 Bideo foruma: *Kandahar*. Gidaria: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

23:00 Sotoko hotsak kontzertua: Ainarra Legardon. Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Sinüose.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
14 BARIKAKUA	15 ZAPATUA	16 DOMEKA	17 ASTELEHENA	18 MARTITZENA	19 EGUAZTENA	20 EGUENA	21 BARIKAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez *Ibañez *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez Yudego	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gauetz: 22:00-09:00 La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar) 943 254 410	

GaraiON Natur Artea kultur espaziora

FAMILIA IRTEERA

Irailak 22, zapatua

Izen-ematea: Elgoibarko Izarra kultur Elkartean edo www.elgoibarkoizarra.eus-en.

Izena emateko azken eguna: Irailak 18

Zenbatekoa: 16 € (13 € bazkideak)

Logotipoak: Elgoibarko Udala, Herriko Antzokia, Elgoibarko Kultur Etxea, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea.

Uztailan eta abuztuan hildakoak

- **Miren Unzueta Mendikute**
95 urte, uztailak 3
- **Jose Miguel Gabilondo Alberdi**
64 urte, uztailak 3
- **Anastasio Zearsolo Agirre**
74 urte, uztailak 11
- **Dominga Leturiondo Alberdi**
87 urte, uztailak 17
- **Jorge Feijoo Marquez**
62 urte, uztailak 18
- **Anton Oria Zabalo**
70 urte, uztailak 19
- **Gabino Arando Alberdi Osintxu**
89 urte, uztailak 21
- **Paulina De Pablo Parmo**
92 urte, uztailak 30
- **Jesus Jauregizar olabe**
92 urte, abuztuak 2
- **Lazaro Bernedo Berasaluze Ziarda**
88 urte, abuztuak 5
- **Tomas Barandiaran Arrizabalaga**
78 urte, abuztuak 6
- **Roberto Arrieta Lopez Txabo**
83 urte, abuztuak 10
- **Elias Liz Rafael**
84 urte, abuztuak 14
- **Migel Arrieta Usabel**
87 urte, abuztuak 21



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



Antton Oria Zabalo

2018ko uztailaren 19an hil zen, 70 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



1960

kasturtea hasi berri den honetan batzuk eskolara joaten dira eta beste batzuk eskola garaiak izaten dituzte gogoan. Aita Agirre eskolako ikasleak dira Jose Ignacio Jauregik ekarri digun argazkian agertzen direnak. Adin bat baino gehiagoko mutikoak daude Plaza Txikiko eskolako lehen arkuan. Gelan elkarrekin ikasi ez arren, jolas garaian batera ibiltzen ziren plazan. Futbolearen jolasten zuten batik bat, baina baita bestelako jolasetan ere: banderetan, kaniketetan arkupeen barruan, *txorro-morro-piko-tallo-ken* eta bileteen jolasean. Azken jolas horretarako tren geltokira joaten ziren eta txartelak eskatzen zizkieten trenetik jaisten zirenei. Makinistak beste kolore batekoa izaten zuen, eta gehiago balio zuenez, hori lortzea zailagoa izaten zen. Hain jolas berezia izanik gogoan dute batetik bestera ibiltzen zireneko sasoia eta eskolatik irten orduko elkarrekin pasatzen zituzten momentuak.

Argazkian honako hauek ageri dira: Javier Egaña, Luis Mari Perea, Juan Luis Arregi, Ricardo Gorriti, Manu Pagola, Jose Ignacio Jauregi, Txomin Mujika, Anton Pagola eta Jose Luis Solas.

LAGUNAK
colchonería textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com

943 744 457

%35^a

www.textillagunak.com

arteko deskontuak!!

**KOLTZOIAREN
HILABETEA**




I. URTEURRENA

Isaac Ramos Lopez

2017ko irailaren 12an hil zen, 66 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailaren 15ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.***



I. URTEURRENA

Margarita Gabilondo Urquizu

2017ko irailaren 15ean hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailaren 15ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.




III. URTEURRENA

Lourdes Leyaristi Echeverria

2015ko irailaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan

Etxeoak



V. URTEURRENA

Manolo Gil Zengotita

2013ko irailaren 17an hil zen, 85 urte zituela. Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, irailaren 21ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean,
eramango zaitugu betiko.***

Familiakoak



ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

18-19 IKASTURTEA

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariaik eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat
MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 26RA ARTE
Langabetu, ikasle eta gurasoek, MATRIKULA ERDIA
Ikastaro amaieran BEKAK donentzat. (Baldintzak betez gero)
Informa zaituz Udal Euskaltegia!



18/19

Matrikula epoa zabalik
Plazo de matriculación abierto

www.udaleuskaltegiak.eus

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2

943 742 731

Elgoibar : 09:00 -13:00 /15:30 - 19:30

10 Euskara
urte
ala ezkara

Elgoibartik Euskal Herrira

KULTURGINTZA: egun osoko jardunaldia, 21 kulturgilerekin
Urriak 6, larunbata, IMH ikastetxean

Prezioa: 30 €

Informazioa jaso eta izena emateko:

www.elgoibarkoizarra.eus eta elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

943 741 626

(izena emateko azken eguna: irailak 28)

Antolatzaileak



Leguntzaileak



DANOBATGROUP

